

FRIEDRICH HÖLDERLIN (1770-1843):***Olerki guztiak***

Orain dala hilabete batzuk argitaratua izan da liburu hau: Friedrich HÖLDERLIN, *Olerki guztiak (edizio elebiduna)*. Euskeratzailea: Luis Arostegi, Markina-Xemein 2012, 1010 or. (Karmel-Sorta - 13).

Euskerari dagokionez, ekintza kultural aipagarria dogu. Argitalpen hau ahalegin handikoa izan da, bai itzultzailearen aldetik, bai *Karmel* aldizkariaren ekintzen aldetik.

1. Nor dan Hölderlin

Hölderlin Lauffen-en, Neckar ondoan, jaio zan; protestantea zan; teologiako estudiorako bideak zabaltzen jakoz, eta komentu izandako eskola baten egin ebazan ikasketak, eta gero Tübingako abadia izandako etxean; hemen, beste batzuen artean, Hegel eta Schelling izan ziran beraren ikaskideak. Teologiako estudioak amaitu ondoren, etxeko maisu ofizioa hartu eban; adibidez, Charlotte von Kab neskearena, hau Schiller-en adiskidea zan, eta gero Gontard bankariaren familian, Frankfurt-en, honen emaztea zuen Hölderlin-ek maite. Emazte honek esnatu eban Hölderlin-en olerki-garra, eta emakume hori izango da haren poesien “Diotima”. Baina etxe honetatik urten beharra izan eban; eta ordutik aurrera barruko bakartadean murgildu zan.

FRIEDRICH HÖLDERLIN (1770-1843)



Gero etxeko maisu lez Bordelera joan zan; eta hemendik espiritua ilunduta itzuli zan Alemaniara eta gaixotuz joan zan. 1806tik gerora burutik eginda bizi izan zan, nahiz eta une batzuetan argialdiak eduki. Tubinga-n hil zan 1843an.

2. Lirikan gorengo mailan

Hölderlinen poesiaren beharrezko ezagutza edo gorengo mailan aintzat hartzea lehenengoz XX. mendean, hau da, bigarren hamarkadan, lehenengo gerra handian, izan zan.

Hölderlin jaio zanean 1770ean, Goethek 21 urte eukazan eta Schiller-ek 11. Alemaniako Klasikoen artean bizi izan zan, beste batzuen artean, baina esan leiteke klasikoen inguruko eta osteko lirikoak ez zirala gai izan Hölderlin-en kreatibitatea eta pertsonalitatea erakusteko. Bere poesian Klasikoen eta Erromantikoen ideiak aurkitzen doguz, baina bere artearen norabidea, edukia eta estiloaren arabera, ez da mugimendu literario jakin baten erraz kokatzekoa.

Hölderlin-en bilakaera espiritualean zerikusia izan eben beste olerkari batzuk (Klopstock, Rousseau, Herder, Schiller, eta Pindar, Homero, Sophokls, Platon, Heraklit, Empedokles greziarrak), baita Kant eta Spinoza-ren filosofiak, eta Frantziako erreboluzioaren idealak be; baina bere denboragaz deseingainatuta, Grezia zaharrean aurkituko dau bere ideala: hau bihurtuko da haren poesiaren indarra, eta ideal hori eraginkorra izango da haren bihotz eta espirituan.

Hölderlinentzat poesia ez da beraren existentziaren apaingarria, bizitza indartsua baino. Grezia zaharreko idealen indarra poesiaren bidez nahiko dau Alemanian jarri. Greziako idealarekin eta Kristautasunarekin aleman izatean sintesi bat nahiko dau egin, eta Jainkoa eta natura gizakiengana hurrertu. Eta asmo horretan erabiliko dau bere hizkuntzaren indarra eta sentsibilitatea. Haren hizkuntza poetikoan eguneroko berba arruntak be askotan zentzu misteriotsua hartuko dabe.

13

In Gießen. 1790.

Dieser Brief - Millionengedanke
 soll in dem Land zu Brauen sein
 und die Menschen erheitern und die
 Menschen Gutes thun.

Die Sprache, die ich hier
 schreiben will, loben göttliche
 Wesen und die Menschen zu
 dem Guten zu führen.

Die mich zu schreiben zu
 können, die ich schreiben
 will, die ich schreiben
 will.

Hölderlin-en "Andinaia" (Die Ebrsucht) olerkiaren eskuizkribua.

Ez dago nabarmentasunik harengan; haren hizkuntza neurritsu eta soila da, bere kontzeptu kutuna katolikoen liturgiaren “sobria ebrietas” (mozkor soila edo neurritsua) dau.

Hölderlinen obra poetiko osoaren barruan aurkitzen doguz elebarri bat (Hyperion), drama bat (Der Tod des Empedokles), olerkiak eta itzulpenak.

Haren poesia lirikoak lehenengo eta behin kontzeptuen lirika da; Schillerengandik hasten bada be, nortasun poetiko pertsonala lortuko dau. Bere elegian eta gorazarretan *Ezilkortasuna* gogoratu eta goratuko dau (Hymne an die Unsterblichkeit. / Ezilkortasunari gorazarrea), *Egia* (Hymne an die Wahrheit. / Egiari gorazarrea), *Musa* (Hymne an die Muse. / Musari gorazarrea), *Askatasuna* (Hymne an die Freiheit. / Askatasunari gorazarrea), *Harmonia* (Hymnus an di Göttin der Harmonie / Harmoniaren jainkosari gorazarrea), *Greziaren gogoa* (Hymne an den Genius Griechenlands. / Gorazarrea Greziaren gogoari), *Gizadia* (Hymne an die Menschheit. / Gizadiari gorazarrea), *Edertasuna* (Hymne an die Schönheit. / Edertasunari gorazarrea), *Gaztetasunaren jeinua* (Hymne an den Genius der Jugend. / Gaztetasunaren jeinuari gorazarrea), *Adiskidetasuna* (Hymne an die Freundschaft. / Adiskidetasunari gorazarrea), *Maitasuna* (Hymne an die Liebe. / Maitasunari gorazarrea), *Kemenaren jeinua* (Dem Genius der Kühnheit. Eine Hymne. / Kemenaren jeinuari), etab. Hor agertuko dira aberria, gizakien duintasuna, garbiaren, onaren, egiaren muina, etab. Baina argi dago, sentimendu horreek bere denborako egoera politiko eta sozialaren inguruan sortutakoak dirala.

Hölderlinek natura ez dau ikusten Goetheren antzera. Harrentzat natura ez da barruan bilatu behar dan jakintza, ez esnatzen dauan grina edo irrika, beste hau baino: bertako bakea, eta isiltasuna, bere agiriko aldaezina eta axolagabetasuna.

3. Luis Arostegiren sarrera

Luisek bere sarreran Hölderlinen inguramenak aipatzen ditu; hau da “olerkariaren gogo-giroa eratzten parte izan eben ja-zoeren, inguruko ideien eta barne-bultzen artean” zerikusia izan eben elementuak:

1) *Bere aldiko, argien mendeko giza autonomi, garapen eta biezkortasuna.*

“Argien mendeko baiezkortasuna, giza eldutasun kontzien-zia, barruti guztietan, jakintzan, politikan, filosofian, sartuz joian. Gazteen protesta giro eta zerbait barri eta askeren be-arrian onen erdian, Frantzia-ko iraultzak entusiasmua sortu eban. Gero, frustrazioa be ekarri eben biolentzi odoltsuak eta urrengo ondorioek. Gaztetxutatik abesturiko idealen gauzatzea irudian iraultzaren bearrizanak eta oniritzeak barruan jarraitu eben, baina egiteek ideal orreen triskantza be erakutsi eben”.

2) *Pietismoa.*

“Bere familian eta inguruan artu eban erlejino bizikizun tra-dizinoa. Kristau bizikera istorikoa Hölderlin-en urreko giroan pietismoz koloreztua zan”.

3) *Filosofia idealista.*

“Teologia ikasketak burutzeraz bialdua izanda, ikasketa par-te zan filosofia ikasteari ekin eutson gogotsu. Autoreen artean, Platon, Kant, Rousseau berariz ikasi ebazan; baita, ikasketa al-dian, Leibniz, Jacobi eta Spinoza be. Hegel eta Schelling ikaste alditik aurrera adiskide izan zituan, batez be leenengoa, ikas-keta aldian eta geroko leenengo urteetan gogoeta eta eztabai-detan kide. Fichte-ren irakastaldietan parte artu eban Jena-n. Berak, filosofia idealistaren giro asieran, persona bakoitzen nortasuna, eta izadiaren errealdade objetiboa zaindu nai dau, eta batera, danaren alkarte eta batasuna”.

“Hölderlin-en idenlismoak zentzu morala dan alde badetik. Gaztaroan goraldu dituan giza idealak beti iraun dabe bere ariman, baina izadian eta gizakiaren jazokun eta egintzetan

aragituta. Batera, naturaren indar itsua gizakiagan eltzen da ezagupen izatera, bera benetan izatera, giza espirituan gauzatzten da munduaren ‘espiritua’, ‘jainkozkoa’ eta Jainkoa be deitua. Ez dago onetaz muga zeatzik jarterik Hölderlin-en pentsakeran. Abiapuntua au da: gizakia beragan eta munduazko artuemonetan erdibiduta dago, ‘batasun doatsua’ galdua da”.

4) *Kultura greziarra.*

“ ‘Grezia izan zan nire leenengo maitasuna, eta ez dakit nire azkenengoa izango dala esan bear dodan’ (1796,1 557). Alemania-ko kulturak eskeini eutson giroa. Winckelmann-en lana izan zan kultura orren agergarri eta eragile. Hölderlin bearbada inor baino sutuago sartu zan mundo orretako kulturaran. Tubinga-ko ikasle zala ikerle aren lanean oinarritutako idazki bat eratu eban ‘Greziarren arteko ertilanen istoria’ (11 1lj). Bere lan osoak erakusten dau mundo greziarraganako gurtza; aretan murgildu zan aren alderdi guztiak bereganatu bearrez: geografia, istoria, filosofia, lirika, tragedia, erti motak, jainkoak, gizurenak”.

5) *Bere bizitzako jazoerak.*

“Berezko oarpidea izanda be, aipatu bear dira, besteak beste, bizikizun samur eta zoriontsuak, umezaro eta gaztarokoak, adiskidetasuna eta maitasuna, olerkariaren natura aurreko zirrara, baina baita eriotzak be, etzekoen eta adiskideen artekoak (asko bai asko), Susette Gondard-ena batez be, frustrazioak: esaterako, Frantziako iraultzaren ondorio ankerra eta gernko gertaerak, utopia apurtu edo ilundu ebenak, etxe-maisutzako iraun-ezina eta porrotak, bizibide tinko eta seguru eta autonomia lortu-ezina (irakaskuntzan edo bere aldizkari baten bidez), maite-erlazinoak utzi bearra, lagunen aldentzea”.

Eta gero Hölderlinen olerkigintzaren aldiak azaltzen ditu Arostegik. Interesagarria da ikustea noiz eta zelako inguruan sorturik dagozan olerkiak; eta konturatuko gara ia danak 1785etik 1806ra artekoak dirala, hau da, bere bizitzako 15. urtetik 34. urtera artekoak.

Hölderlinen poesiaren distira eta ezkutuari buruz azalduko dau L. Arostegik:

“Non asmatzen dauan olerkariak poesi zirrara, non agertzen jakon aren ederra, berbetan adierazi bearrekoa, da beti guretzat, gai onetan, ezkutua. Eta zelan gu, aren olerkiaren bidez, urreratu gein tekezan, zearka, poesia asmatzera. Olerkariak izadia edo natura deitzen dauana aurkitzen dogu beti eta leku guztietan, beretzat misterio agortezina: era guztietako gai liluragarriak betea, euren alkartez, mugitez, kontrastez, beti leengoa eta beti barria. Lurra eta argia, argi bero bizigarria. ‘Eterra’ dau bizi-giroa, barne indarra, edota ‘espiritua’, geroago eta geiago. ‘Misterio agortezina’, dinogu, izan be naturaren amaibako edertza ez da zentzunen izadi eskerga soilik, errealdade orren erdian espiritua, eta jainkozkoa, da bizigarri. Beinolakako urre-aroko (greziarren aldiko) espiritu indar agirikoa, jainkozko presentzia, eta arrezkero, orain, aren ausentziaz, jainkozkoaren etorreraren itxaropena eta iragarpena, lur gaineko giza bizitza noonorarako bidaldia, bideko jorana eta kadena. Olerkaria izate orren kontzientzia, igarlea, eta eragilea”.

4. Euskerazko itzulpena

Luis Arostegik, *Karmel* aldizkariko idazlea eta olerkaria be-
ra, lan handia egin dau Hölderlinen olerki guztiak euskerara
itzuliaz, baita lan luze, handi eta oso neketsua be. Hemen
daukagu Euskera ederraren altxor bat, benetako obra poetikoa
euskeraren aldetik. Euskal kulturarentzat lorpen aberatsa bi-
hurtzen da liburu hau.

Arostegiren lana baloratzeko kontuan izan behar dira ikus-
pegi batzuk. Lehenengo eta behin hizkuntza alemana, eta ba-
tez be XVIII. mendekoa, eta oraindino gehiago Hölderlinen
hizkuntza berezia, esan geinke; olerkariak berba asko era be-
rezian, baita kontzeptu sakonekin lotuta erabiltzen ditualako.

Arostegiren ahaleginak benetan handiak izan dira berbak
eta esaldiak al bait ondoen edo perfektuen itzultzen. Lehenen-

go ulertu testua eta berba bakoitza, eta gero euskerara bihurtu zentzu eta estilo onenean. Badakigu itzulitako olerkia ikutzen eta orrazten trebea dala.

Aleman eta euskera dakienak, liburua eskuan hartuta konturatu da, olerkariaren berbeari eta ideari lotuta zein zehatz eta leial itzultzen dauan. Berba bera ez dau beti bardin itzultzen, bere inguruko esanahiaz baino. Hona hemen adibide txiki eta interes berezirik ez daukana: olerkariak *Sehnsucht* berbea lau bider bakarrik erabiltzen dau, eta Arotegik bakoitzean euskera-zko berba ezberdinak erabiltzen ditu: *irrika* (Ewig mich tödten die zornge Sehnsucht? betiko irrika asarratuak ilarazi ni?), *errimin* (Dorthin wende den Blick, und weine die Thräne der Sehnsucht! / zuzendu begiak, eta isuri errimin malkoak!), *guraria* (Ins Ungebundene gehet eine Sehnsucht. / doa lotugabera guraria), eta laugarren hitzaren esanahia beste berba baten sartzen dau (Und die Liebsten nahe wohnen sehnsuchtsvoll, / eta maitteenak urrean bizi [alkarmin]).

Beraren itzultzaile lana ikusteko adibide bi jarriko ditugu, 1800. urteko olerki bi:

Sonnenuntergang.

Wo bist du? trunken dämmert die Seele mir
 Von aller deiner Wonne; denn eben ists,
 Daß ich gelauscht, wie, goldner Töne
 Voll, der entzükende Sonnenjüngling

Sein Abendlied auf himmlischer Leier spielt';
 Es tönnten rings die Wälder und Hügel nach.
 Doch fern ist er zu frommen Völkern,
 Die ihn noch ehren, hinweggegangen.

Eguzki sartzea.

Non zara?, lausotzen doakit arimea
zure atsegin guztiaz mozkor; oraintxe entzun dot-eta,
urrezko doinuz beterik,
eguzkiaren gazte liluragarria

bere arrats abestia lira zerutarrean joten;
oiartzun egien baso eta muinoek inguru.
Baina urrin da joana, bera oindino
gurtzen dabon erri zintzoakana.

Abendphantasie.

Vor seiner Hütte ruhig im Schatten sitzt
Der Pflüger, dem Genügsamen raucht sein Heerd.
Gastfreundlich tönt dem Wanderer im
Friedlichen Dorfe die Abendglocke.

Wohl kehren izt die Schiffer zum Hafen auch,
In fernen Städten, fröhlich verrauscht des Markts
Geschäftt'ger Lärm; in stiller Laube
Glänzt das gesellige Mahl den Freunden.

Wohin denn ich? Es leben die Sterblichen
Von Lohn und Arbeit; wechselnd in Müh' und Ruh'
Ist alles freudig; warum schläft denn
Nimmer nur mir in der Brust der Stachel?

Am Abendhimmel blühet ein Frühling auf;
Unzählig blühen die Rosen und ruhig scheint
Die goldne Welt; o dorthin nimmt mich
Purpurne Wolken! und möge droben

In Licht und Luft zerrinnen mir Lieb' und Laid! –
 Doch, wie verscheucht von thöriger Bitte, flieht
 Der Zauber; dunkel wirds und einsam
 Unter dem Himmel, wie immer, bin ich –

Komm du nun, sanfter Schlummer! zu viel begehrt
 Das Herz; doch endlich, Jugend! verglühst du ja,
 Du ruhelose, träumerische!
 Friedlich und heiter ist dann das Alter.

Arratseko irudipena.

Bere borda aurrean dago lasai gerizpetan
 goldaria, neurritsuarentzat ke-jario bere sutea.
 Arrotz-maite joten deutso bidaztiari
 baserri baketsuan arrats kanpaiak.

Ederto biurtzen dira orain portura ontzilariak be,
 urrineko urietan azoka barail zeregintsua
 pozik itzaliz gero; itzalpe narean duzdiz
 dagitse adiskideei maaia alkargarriak.

Nora ni beraz? Lansari eta lanetik
 bizi dira ilkorrak; nekea ta atsedena aldizkatuz
 dana da gozatsu; zergaitik niri bakarrik
 ez jat sekula eztena bularrean ibitzen?

Arratseko zeruan loran da udabarria;
 kontaezin larrosa loran eta baretsu dager
 urrezko mundua; oi, artu nagizue orra
 purpurazko odeiok!, eta an goian baleitekidaz

argitan eta aizetan maitasuna eta mina urtu! –
Baina eskari zoroak uxatuta lez, iges dagi
lilurak; ilunduz doa eta bakarrik
zerupean, beti lez, nago ni.

Zatoz orain, lo samurra!, geiegi dau irrika
biotzak; baina azken baten, gaztaro!, itzaltzen zara bai,
artega, ameslari ori!,
baketsu ta argia da gero zaartzaroa.

5. Eskerrak

Aurkezpen labur honetan, azkenez, Luis Arostegiri eskerrik beroenak emon beharrean gara, egin dauan lan onagaitik, hollako itzulpen lan literarioekin euskeraren altxorra gehitzen doa. Batzuk ez dira bat etorriko autoreak erabili dauan ortografiaz. Baina autortu beharra izango dabe liburu eder eta itzulpen oso onaren aurrean aurkitzen dirala.

J. Urkiza